

Bustin izanda, urre irudi nai duen orri,
 ¿Nola da andre eta gizonak sinistzea?
 ¿Arrosategi deitzen badio lartegi oni,
 Baita kantatu bizitza dala chit luzea?
 Sei milla urtez baldin ezautu ezpadu ori,
 Zorakeria beti izango da gaztea.

*
 * * *

PREMIAK ERAGIN



NERE ADISKIDE ON JOSÉ ARTOLA JAUNARI AMALAUDUN BAT

Pepe, guretzat premia oi da eragillia,
 Uste etziran erabakiak artutzeko,
 Umetandikan zana pobre ta errukarria,
 Aberastuta maiz oi dalako gora jaso;
 Duda gaberik asmoz dalako arrigarria,
 Gau eta egun inoiz prest dago nekatzeko,
 Aurrerapenak ari diote gaur zor aundia,
 Beragatikan argitaratu diralako.

Baña ala ere gaiztoak baita oi ditu sortu,
 Kartzeletara beragatik da asko juan,
 Baita biguñdu argatikan da aski gogortu,
 Beartasuna utsik badakus inguruan,
 ¡Ay! zeinbat diran premian damuz ongi aitortu,
 Apaizarekin aitzena eldu dan orduan!

*
 * * *

ZORIONEKO AFARIA



NERE ADISKIDE RAMON ARTOLA GAZTERARI AMALAUDUN BAT

Doatsua dan Juan Inazio bart illuntzean
 Sorotik sollik kantuz zijoan echeratzen,
 Non illargiak egiten zion lagun bidean,